

BALOREZKO PROPOSAMENA

GURE PRODUKTUAK ESKAINIKO DUENA:

Gure produktuak zapatila estandar bat izango da, horretaz aparte, hainbat zola mota aurkeztuko ditugu merkatura, bakoitza kirol batean espezializatuta. Ondorioz, hau erostea erabakiko dute, kirol desberdin asko praktikatzeko erabilgarriak izango direlako eta horrela, diru kantitate handia aurreztuko dutelako zapatila bakarra izatean. Profesionalki kirolariak ez diren pertsonentzat oso aproposa da azken finean kirol desberdinak praktikatzeko balio iznago du eta horrela ez duzu hamar pare zapatila erosi beharko bakarrik bakarra, gurea.

Abantailen aldetik;

1. Gure zapatilak, nahiz eta oso merke ez izan, diru asko aurreztuko lukete hainbat zapatila mota erosi beharrean bakar batekin hainbat kirol praktikatzen ahalko zirelako. Gainera prezioa jartzeko orduan, koste gutxienezkoa egiten saiatuko gara, azken finean edozein egoera ekonomiko duten familietara heltzea nahi dugu.
2. Zapatila klasikoak asko erabiliz gero, oso azkar apurtzen dira, hala ere gure zapatilen zolak askoz gogorragoak izango dira, beraz, gehiago iraungo dute. Materialetan kontzentratuko gara, material gogor eta erosoak zihurtatzeko. Iraunkorrak izatea gure lehentasuna izango da.
3. Gainera, zapatila klasikoaren egitura, normalean, ez da batere erakargarria. Askotan oso sinpleak dira. Horrela izan beharrean, gure zapatilei buruzko diseinu asko ekoiztuko ditugu. Hala nola:
 - Umeenentzat, beren marrazki-bizidun gogokoaren forma eta irudiak dituzten zapatilak ekoiztuko ditugu.
 - Gazteentzat, diseinu moderno eta koloretsuak aterako ditugu merkatura, gazteak bere irudiaz asko larritzen dira, talde presioa gizarte honetan izugarria delako.
 - Helduenentzat, diseinatzaile famatuaren (Agatha Ruiz De La Prada, Francis Montesinos, Adolfo Dominguez adibidez) edo diseinu bereziak dituzten zapatilak.
 - Originalentzat, gure web orrian, bere diseinu propioak egiteko atal bat jarriko dugu. Eta horrez aparte, mugikorreko aplikazio bat jarriko dugu eskuragarriago izateko.
4. Berritasuna: gure inguruko enpresen artean ez da inoiz horrelako produkturik ekoiztu beraz, produktu guztiz berritzailea izango da.

DISEINU PRINTZIPALA:



Egitura orokorra

Zola desberdinak

ATALAK

A) Egitura orokorra: zapatila bat izango da, zola aldatu daitekeena. Iragazgaitza izango da, horrela kanpoko kirolak praktikatu ahal ditugu. Horretaz aparte aire ganbara bat edukiko du,


B) Zola desberdinak: Hainbat sola ezberdin merkatura aterako ditugu, okasio bakoitzean behar duguna erabiltzeko, besteak beste:

B.1: Traileko zola:



Gaur egun, gero eta famatuagoak dira mendiko trailak, eta horretarako argazkian ikusten den zola eskaintzen dugu. Honek tako asko eta hainbat formatako marrazkiak ditu lur sailera hobeto heltzeko (lokatzaren ondorioz irristada eta erorketak saihesteko, batez ere). Gainera bere material espezifikoak iragazgaitza da eguraldiaren aldaketa desberdinei egokitzeko (euria, tenperatura baxuak, lokatza...).

B.2: Saskibaloiko zola:



Heltze eraginkorra bermatzen dute korrika egitean lesioen arriskuak gutxitzen. Gainera, zola gelez eginda dago. Horrek, moteltze izugarria eskaintzen du.

B.3: Eskubaloiko eta boleiboleko zola:



Hau eskubaloiko eta boleiboleko zapatilaren zola da. Ikusten denez gomazko non-making kautxuzkoa zolak dira, eta honi esker zelaian ez zara irristatzen. Horrez aparte, materiala oso iraunkorra da eta denbora asko irauten dute egoera onean. Ez dute ezer pisatzen.

B.4: Futboleko zola:



Futboleko zapatilak: Denbora librean futbolean jolasten dutenentzako bi zola mota kaleratuko ditugu: Lehenengo mota belar artifizialean jolasteko balio izango du eta bigarrena belar naturalean. Belar artifizialekoak plastikozko takoak edukiko ditu, tako klasikoak jartzea

hautatu dugu. Gainera bi tako berri jarri ditugu plakaren erdialdean heltzea hobetzeko eta belauneko lesioak ekiditzeko. Belar naturalean jolasten dutenentzako, artifizialeko berdinak egin ditugu baina aluminiozko lau taku kokatuko ditugu belarrean irristatzeak saihesteko.

B.5: Footing egiteko zola:



Gaur egun gero eta jende gehiago dago kalera edo kiroldegira korrika egitera joaten dena. Zapatilaren zola biguna da oinari mugimendu naturala ahalbidetzeko. Eta materialaren aldetik irristatzeak saihesteko egokiak dira. Kalerako ere egonkorrak izan behar direnez, zola iragazgaitza da.

PREZIOA

A) Produktu orokorra: zapatila normala.

	Zapatila normala	Zapatila espezifikoaak (diseinu espezifikoa)
<u>Helduak</u> neurria: 37 - 43	100 euro	120 euro
<u>Umeak</u> neurria: 24 - 36	50 euro	65 euro

B) Produktu sekundarioa: zolak.

<u>Zola motak</u>	<u>Prezioak</u>
Footing egitekoa	10 euro
Eskubaloikoa	15 euro
Saskibaloikoa	20 euro
Futbolekoa	Normala: 15 euro Espeziala: 25 euro

Trailekoa	25 euro
-----------	---------

Produktuak bezeroa asetzen ez badu, edo produktuak akatsen bat badu dirua bueltatuko zaio, edo beste produktu bat emango zaio. Eskurarritasuna: edoizen supermerkatuan eta interneten.